

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Ondare Kudeaketa

Vitoria-Gasteizko Juan Bautista Gamiz kaleko 10. eta 12. zenbakiko higiezinaren sotoan automobilak aparkatzeko hogeita (20) leku eta motozikletak aparkatzeko zazpi (7) leku lehiaketa bidez besterentzeko dosierra abiaraztea, baldintza-agiria onestea eta lehiaketa deitzea

Udala jarraian zehazten diren aparkalekuen jabetza osoaren titularra da. Aparkaleku horiek ondasunen eta eskubideen inbentario orokorrean alta emanda daude, behean ageri diren erreferentziekin, eta 5. jabetza erregistroan inskribatuta, dosierrean jasotako ohar soilen bidez egiaztatzen den bezala:

INBENTARIOKO ERREF.	IBILGAILU MOTA	PLAZA-ZENBAKIA
I - 3502	Autoa	4
I - 3503	Autoa	5
I - 3504	Autoa	6
I - 3505	Autoa	7
I - 3506	Autoa	8
I - 3507	Autoa	9
I - 3508	Autoa	10
I - 3509	Autoa	11
I - 3512	Autoa	14
I - 3514	Autoa	16
I - 3515	Autoa	17
I - 3516	Autoa	18
I - 3521	Autoa	23
I - 3522	Autoa	24
I - 3523	Autoa	25
I - 3524	Autoa	26
I - 3525	Autoa	27
I - 3526	Autoa	28
I - 3527	Autoa	29
I - 3528	Autoa	30
I - 3530	Motozikleta	M1
I - 3531	Motozikleta	M2
I - 3532	Motozikleta	M3
I - 4600	Motozikleta	M4
I - 4601	Motozikleta	M5
I - 4602	Motozikleta	M6
I - 4603	Motozikleta	M7

Tokiko Gobernu Batzarrak besterentzeko baldintza-agiria onestea erabaki zuen 2024ko azaroaren 22an.

Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Erregelamenduaren 118. artikuluari jarraituz, dosierrean jasota dago udal atal eskudunak egindako balorazio teknikoak, zeinak lizitazio-tasa hauek zehazten baititu (BEZaren aurretik):

Automobil-plazak (20)	16.480,50 euro unitateko
M1, M6 eta M7 gisa identifikatutako motozikleta-plazak	4.603,50 euro unitateko
M2, M3, M4 eta M5 gisa identifikatutako motozikleta-plazak	3.682,80 euro unitateko

Dosierrean jasota dago, halaber, baldintza-agirian ezarritako eragin-eremuan integratutako agente bat izatearen komenigarritasunari buruzko txostena, lizitazioari zabalkundea eman diezaion, eskainitako plazak fisikoki ezagutzeko interesa dutenen bisitak har ditzan eta auzokoei aholkularitza eman diezaien lizitazioaren baldintzak interpretatzean eta eskaintzak prestatzean.

Hori dela eta, Gobernu Batzarrak onetsi du zerbitzu-kontratu txikia izapidetzea funtsaren administratzaile FINETXALDE SLrekin, Udalaren Kontratazio Agendaren bitartez ezarritako bidetik, zeregin hauetarako: lizitazioa zabaldu eragin-eremuko komunitateen, bezeroen eta merkatarien artean; bulegoan informazioa eman prezio-baldintzei eta komunitate-araubide aplikagarriari buruz; eskainitako plazak ikusteko bisitak bideratu, eta baldintza-agirietan eskatutako dokumentazioa prestatu eta aurkezteko aholkularitza eman.

Dosierra Ogasun Saileko Idazkaritza Teknikoaren Zerbitzuan aztertu ahalko da (Teodoro Dublang Margolariaren kalea 25), alde zuzenetik hitzordua eskatuta, eskaintzak aurkezteko egunaren bezperara arte, bulegoko jendaurreko ordutegian.

Baldintza-agiria <https://v-g.eus/aparkatzekoplazak> helbidean kontsultatu ahalko da.

Vitoria-Gasteizko Udalaren erregistro nagusian — Teodoro Dublang Margolariaren kalea 25, behe; 01008 Vitoria-Gasteiz — aurkeztu beharko dira proposamenak, 08:30etik 13:00etara, astelehenetik ostiralera, edo postaz, urriaren 12ko 1098/2001 LEDaren 80.4 artikuluan xedatutakoaren arabera; 2025eko otsailaren 17a izango da azken eguna.

Postaz igorri gero, bidalketa zein egunetan egin den justifikatu beharko du lizitatuak, eta bidalketaren egunean bertan eskaintza egin izana jakinarazi deialdia egin duen organoari, posta elektronikoz (ofertasconcursos@vitoria-gasteiz.org).

Bi eskakizun horiek bete ezean, iragarkian adierazitako epea bukatzen den eguna eta ordua igaro ondoren jasotzen bada proposamena deialdia egin duen organoak, ez da hura onartuko. Edonola ere, adierazitako datatik hamar egun natural igarotzen direlarik proposamena iritsi ez bada, ez da inolaz ere onartuko.

Aurkezteko epea bukatzen delarik, balorazio-batzordea eratuko da, zeinak gaitasun-betekizunak betetzen diren egiaztatuko baitu, eta lizitatuak proposamenak jasotzen dituzten gutun-azalak irekitzeko ekitaldi publikoaren eguna eta ordua zehaztuko (<https://v-g.eus/aparkatzekoplazak> helbidean argitaratuko da).

Batzordeak proposamenak aztertuko ditu, horren akta jasoko du, eta esleipen-proposamena helaraziko dio Tokiko Gobernu Batzarrari, hark onetsi dezan.

Esleipendunaren kontura joango dira eskualdatzeak eragingo dituen gastu eta zerga guztiak: lizitazio-iragarkia ALHAOn argitaratzeko gastuak, notario eta erregistroari dagozkienak, zergak eta gainerakoak.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko azaroaren 22an

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
JON ARMENTIA FRUCTUOSO